



## *“Botoa aldatu izan duen bitxo arraro horietakoa naiz”*

**Imanol Murua Uria**

Elkarrizketatzaile elkarrizketatua,  
ez da sarri gertatzen.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

**Are gutxiago elkarrizketatzaile elkarrizketatua momentuko analista politikoa izatea.**

Renoko Unibertsitateko ikasle bat elkarrizketatzen ari zara, denbora librean analista politikoren plantak egiten dituen.

**Egin plantak bada: eman egungo egoera definitzen duen esaldia.**

Azkenean egia zen tunelaren bukaeran argia zegoela.

**Orain euskaldunok abilak izango gara politikagintzan...**

Eskoziarrak bezain abilak ez, oraingoz behintzat. Azken hamarkada hauetan kalamidade samarrak izan gairela esango nuke.

**Oraintxe esan duzu...**

Hanka-sartzez hanka-sartze eskarmentua pilatzen ibili gara; eta pauso bat edo beste atzera ematen, baina inpultsua hartzeko.

**Euskal Herriko momentu politikorik kitzikagarriena, eta zu AEBetan.**

Eta oraindik ez nago seguru zerbaiten bila etorri nintzen, edo zerbaiten ihesi alde egin ote nuen.

**Ez dakitzenbatmila exiliatu horiekin batera bueltatu zaitezke, beti ere.**

Alde egin nuenean hasi ziren, hain zuzen, gauzak apur bat zuzentzen. Ez dezagun dena izorratu azkarregi bueltatuta.

**Akats bat aipatuko dizut, dena den: analista politikoa izateko, gutxiegi nabaritzen da zein den zure alderdi politikoa.**

Hauteskundetik hauteskundera botoa aldatu izan duen bitxo arraro horietakoa naiz: ETA-ren atentatu batek nire boto asmoa alda zezakeen, baita Espainiako Auzitegi Gorenaren erabaki batek ere. Egoera berrian, susmoa dut mundu guztiak bezala egingo dudala: beti ekipo berari.

**Orduan izango zara benetako analista politiko, hots, alderdi politiko baten bozeramaile.**

Honez gero ez dut lortuko. Dena den, beti alderdi jakin beraren irakurketa bera egiten duten analistak ere baliagarriak zaizkit: alderdien txosten luzeak irakurri beharrean, analisi/laburpenak irakurtzea errazagoa da. Baina, beti ere, askoz nahiago analisi propioa egiteko gaitasuna dutenak.

**Egiguren, Urkullu, Otegi elkarrizketatu dituenak, esateko beste izango du isiltzeko, ezta?**

Ez gehiegi. *Loiolako Hegiak* libururako elkarrizketak egin nituenean, arau bat proposatu nien: ez kontatu argitaratu ezin dudan ezer. Ondo atera zitzaigun jokaldia.

**Oso ondo, begira orain non gauden!**

Begira eta begira ari naiz baina, egia esan, ez diot antzematen non arraio gauden. Ea bi urte barru kontatzen dizuedan. ■

